

## Italian Cossigak dimisioarekin mehatxu egin zuen

ERROMA

Francesco Cossiga Italiako lehendakariak dimisioa aurkeztuko zuela iragarri zuen, bere kontra kritikak egiten ari zirenak isiltzen ez baziren eta bere ahalmenak erabiltzen uzten ez bazioten. Arnaldo Forlani Legebiltzarreko idazkariak Kamarak disolbatu eta hauteskundeak egiteko deialdiarekin mehatxatu zuenean dimititu egingo zuela azaldu zuen Cossigak.

Cossigak bera kritikatzeko zutenak «pistoleroak» baino ez zirela azaldu zuen Italiako telebista kate batean. Lehendakariak adierazi zuenez, «Italiako sistema politikoko sektore garrantzitsuek jarrera desegokia azaldu dute eta sektore horien barnean Alderdi Demokristaua ere sar daiteke». Cossigak dimisioa aurkeztuko zuela iragartzean ez zuela ultimatumik egin nahi adierazi zuen. Forlani eta Giulio Andreotti gobernuburuaren jarrerak ulertzen zituela azaldu zuen Cossigak. Eratorik gogorrenak Ciriaco de Mita Alderdi Demokristauko lehendakariarentzat izan ziren. De Mita eta Cossigak ez zituzten elkarrenganako hitz epelak izan azken hilabeteotan, zenbait komunikabideren bidez irainak bota bait zizkieten elkarri. «Hemendik aurrera De Mitak nahi duena esan dezake, ez diot erantzungo, gauza garrantzitsuagoak egin behar ditut», esan zuen Cossigak.

# Boris Ieltsin Karabakh Garaira artekari lanak egitera joan da

Bertako hiru urte luzeko gerra zibilari amaiera ematen saiatuko da Nazarbaievekin batera


**B**oris Ieltsin, Errusiako lehendakaria Karabakh Garaira joan zen atzo, bertako armeniar eta azeriarren arteko gerran artekari egiteko, herenegun ere enfrontamenduak izan bait ziren Azerbaidjan-eko lurralde hartan. Errusiako lehendakariaren bisita honek zurrumurruak ere sortu ditu bere gaixotasuna «politikoa» ote zenaz, berehala osatu bait da.

MOSKU

Nursultan Nazarbaiev, Kazakhs-tan-eko lehendakariarekin batera, Ieltsinek bi eguneko bisitaldiari ekin zion atzo arratsaldean Karabakh Garaiko gerra zibilari amaiera emateko artekari papera jokatzera. Karabakh Garaia Azerbaidjan errepublikan dago, baina armeniarrek dira nagusi han eta beren independentzia edo Armeniarekin batzea eskatzen dute.

Herenegun enfrontamendu gogorrak izan ziren Azerbaidjaneko eskualde hartan. Gutxienez bi lagun hil ziren eta beste zazpi larriki zauritu gerrilari armeniarrek eginiko eraso batean, eta talde azeriarrek eginiko beste eraso batean berriz, hildakorik izan ez bazen ere, etxe batzuk erreta utzi zituzten.

Ieltsin eta Nazarbaieven artekari-tza lana Soviet Batasuneko Estatu



Ieltsin, bihotzeko gaixotasunak jota Barcelonan ere ingresatuta egon zen.

**✓** Nicholas Bradyk, EEBBtako Estatuko Altxorraren idazkariak SESBerri datorren urtean eman beharreko dirulaguntzaren herena negua iragateko aurreratu dio

Kontseiluak gomendatu zuen eta Ieltsinek herenegun martxan hasi zen Errusiako Soviet Gorenean gaixo zegoela eta agertu ez bazen ere eskualde horretara joatea erabaki zuen.

Soviet Goren errusiarrean huts

egin eta hurrengo egunean Karabakh Garaira joateko osatuta egoteagatik zurrumurru handiak zabaldu dira Errusiako zenbait politikoren ahotik lehendakari errusiarren gaixotasuna «politikoa» ez ote zenaren gainean. Izan ere, herenegun, diputatu

**✓** Ieltsinen bapateko osatzeak zurrumurruak piztu ditu bere gaixotasuna fisikoa baino «politikoa» ez ote zen izan

errusiar batzuek kontuak argitzeko eskatu behar zioten Ieltsini bereak ez diren botereak erabiliz zenbait dekreturen bidez neurriak hartzeagatik.

Atzo Soviet Goren errusiarrek bilduta jarraitu zuen eta diputatuak Boris Ieltsini eskatu zioten bere Gobernuaren osaketa berraztertzeke, bere neurri politikoei errepublika hori krisi ekonomikoetik irtetzeko ez dutelako balio izan.

Legebiltzarrek lehendakari errusiarri eskatu zion Gobernutik kanporatzeko Errusiako Diputatu herrikoien Ganbarak eta errepublikako Soviet Gorenak erabakitako neurriak eta legeak aurrera eramanez dituzten Ministeritzaren arduradunak.

Bestalde, atzo itzuli ziren Estatu Batuetara Moskun egon ziren Nicholas Brady Estatuko Altxorraren idazkari iparramerikarra eta Alan Greenspan, Erreserba Federalesko lehendakaria, Mikhail Gorbaxov, lehendakari soviatarri datorren urtean eman behar zitzaion dirulaguntzaren herena negua iragateko aurreratzeko aginduarekin.


## Baker eta Ashrawik palestinarren partehartzeaz hitzegin zuten atzo

AMMAN

James Baker, EEBBtako estatu idazkaria atzo bildu zen Hanan Ashrawi lurralde okupatueta palestinarren ordezkariarekin. Jasser Arafat, Palestinaren Askepenerako Erakundearen (PAE) buruzagiaren mezua eman zion Ashrawik EEBBtako estatu ordezkariari. Ashrawik urrian egingo den bake konferentzian palestinarrek izango duten partehartzearen baldintzak zehazteko bildu zen Bakerrekin.

Bilera Jordaniako hiriburuan egin zen, Amman-en eta Ashrawik azaldu zuenez, goizegi zen Arafaten mezua berri emateko. Palestinaren ordezkariak esan zuenez, bake konferentziara palestinarrek bidali behar zuten delegazioaren partaideak erabaki gabe zeuden. Palestinarek konferentzia joanez gero izango zituzten garantiak eztabaidatu zituztela ere adierazi zuen Ashrawik.

Bakerrek joan zen asteartean esan zuenez, «palestinarrak bake konferentziara ez badira joaten, aukera galduko duten bakarrak beraiek



James Baker eta Hanan Ashrawi Ammanen bildu ziren.

izango dira». Estatu Batuen aldetik garantiarik ez bazuten lortzen bake konferentzian ez zirela azalduko iragarri zuten palestinarrek.

Palestinarek bake konferentzia bukatu ondoren autodeterminazio prozesua ziurtatzea nahi zuten eta hala eskatu zioten Estatu Batuei. Hauek ordea ez zieten inolako garrantiarik eskaini nahi palestinarrei. Estatu Batuek berriz Israelen eskakizunak betetz gero PAE eta Jerusa-

lemeko palestinarrek konferentziaz kanpo geratuko zirela agindu zuen. Palestinarek ezezik, arabiarrek ere baldintzak jarri dituzte. Siriak Golan Gainak bereganatu nahi ditu eta egoera okertzeko israeldarrak etxebizitza ugari eraikitzen ari dira lurralde okupatueta. Atzo Jerusalemeko ekialdean, 1967. urtean arabiarrei kendutako hiriaren zatian, auzo berria eraikitzeko proiektua aurkeztu zen.

## Marokkok 170.000 lagun mugitu ditu Sahara Mendebalde aldera

RABAT

Marokko Sahara Mendebalde-ra «1974eko errolda espainiarrean ez dauden ustezko saharariarrak» bidaltzeko prest dago, Rabat-eko iturri politiko batzuek atzo adierazi zuten. 1974eko errolda espainiarra da hain zuzen Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Sahara Mendebaldean egitekoa den autodeterminazioa erreferendumerako oinarri bezala jarritakoa eta Marokkok onartzen ez duena.

Informazio hau ez dute ofizialki baieztatu Rabaten, baina berri hori jakin aurretik Polisario Fronteak dagoeneko salatu zuen Marokkoko agintariak «ibilaldi berderako» deia egin zutela. Ibilaldi horretarako deialdia, Polisarioak argitara emandako komunikatuaren arabera, Marokkoko Barne Ministeritzak egin zuen asteazkenean «NBERi hautesleko atzeritarrak ezartzeko asmoarekin, erreferendumean Marokkoren aldeko emaitza irten dadin».

Iturri berdinen arabera,

«170.000 lagun inguru dira Sahara Mendebalde aldera etortzeko asmoa dutenak, lurralde saharai okupatueta». Polisarioak uste du «politika marokkiararen beste afera bat dela hori eta denok dakigu zer bilatu nahi duen horrekin. Horregatik nazioarteko komunitateari dei egiten diogu Hassan IIaren politika salatzeke».

«Marokkoren erabaki horri aurrera egiten utziz gero, ez du Marokkok NBE makurtzea besterik lortuko». Fronte saharaiak ibilaldi berri hau 1975ean eginkoarekin gonbaratu zuen. Orduko «ibilaldi berdeak» Sahara Mendebalde inbaditu zuen eta Espainiak bere soberania onartzeari uko egin zion. Bestalde, Polisario Fronteak salatu zuen Marokkok jarri dituen trabak NBEko begirale taldeari Saharan sartzeko eta zentsua kontrolatzeko eramandako materiala eta material humanitarioa Marokkoko kaietan blokeatzegatik. Hassan II erregearen aurka ere salaketak egin zituen irailaren 6an ezarritako suetena bortxatzeagatik.